



Nafarroako Kanpoko Ebaluazio Estandarizatuak
EBALUAZIO DIAGNOSTIKO ZENTSALA
Lehen Hezkuntzako 4.a
2023-2024 ikasturtea

Jarduketen protokoloa

AURKIBIDEA

2023-2024 ikasturteko berritasunak.....	3
A. Galde-sorta sozioekonomiko eta kulturala online aplikatzeko protokoloa.....	4
B. Probak entregatzea eta zaintzea	6
C. Ebaluazio probak nork egingen dituen.....	6
D. Ikasle salbuetsiak eta sarbide-egokitzapenak dituzten ikasleak	6
E. Probak betetzea.....	8
F. Aplikazio-fasea prestatzea	8
G. Aplikazioa	8
H. Proba egunean etorri ez diren ikasleak.....	10
I. Berriazko jarraibideak gaztelaniazko hizkuntza-gaitasuneko probarako.....	11
J. Berriazko jarraibideak euskarazko hizkuntza-gaitasuneko probarako	13
K. Berriazko jarraibideak ingelesezko hizkuntza-gaitasuneko probarako.....	15
L. Berriazko jarraibideak matematika gaitasuneko probarako	17
M. Probak aplikatzeko egutegia eta iraupena:.....	18
N. Proben zuzenketa	18
O. Ikasleen matrikulazioa eta datuen sarrera	19
P. Ikaslearen txostenak eskuratzea	20
Q. Ikastetxearen emaitzen txostena, PDF eta CSV formatuetan:.....	21
R. Ikusi ikastetxearen emaitzak TABLEAU:.....	22
S. Txostenen emaitzen interpretazioa	23
T. Ikasleek egindako probak gordetzea	23
U. Eskerrak ematea.....	24
I. ERANSKINA - SALBUETSITAKOEN ERREGISTROA.....	25
II. ERANSKINA - EGOKITZAPENEN ERREGISTROA.....	26

Dokumentu honetan Nafarroako ikastetxe guztiek kontuan hartu beharreko jarraibideak azaltzen dira, ebaluazio probak ikastetxe guztietan modu kontrolatuan eta era berean aplikatzen, zuzentzen eta erregistratzen direla bermatzeko.

Ebaluazio honen aplikatze-, zuzentze-, grabatze- eta informatze -anetan aritu beharreko zuzendaritzako kideek eta irakasleek behar bezain garaiz jakin eta gauzatu beharko dituzte jarraibide hauek.

2023-2024 ikasturteko berritasunak

- Ebaluatuko den lehen gaitasuna euskarazko hizkuntza-gaitasuna izanen da (soilik B/D ereduko ikastetxeetan). Gainerakoak aurreko urteetako ordena berean eginen dira: gaztelaniazko hizkuntza- gaitasuna , matematikarako gaitasuna eta ingelesezko hizkuntza-gaitasuna.
- Matematikarako gaitasuneko proba 60 minutukoa izanen da, eta **kalkulu mentalaren zatia egin ondoren hasiko da denbora hau kontatzen**; hots, kalkulu mentaleko eragiketak eta problemak eginen dira **emandako jarraibideen arabera**, eta, horiek bukatutakoan, denbora kontatzen hasiko da.
- Txosten honetako L. atalean jaso dira matematikarako gaitasunaren aplikazioaren jarraibideak.
- Nahitaezkoa izanen da zirriborro-espazioa erabiltzea ingelesezko hizkuntza-gaitasunaren *writing*-ean.
- Hizkuntza-gaitasunei buruzko berriazko jarraibideetan ikasleek egin ohi dituzten galderak jaso dira.
- **Indize sozioekonomiko eta kulturalari (ISEK)** buruzko galdetegia ez da elebitan egonen, euskara hutsez edo gaztelania hutsez irakurriko da. Aldaketaren helburua da formatua argiagoa izatea, galderak errazago irakurtzeko. Horregatik, etxera eraman dezaten inprimatu nahi izatekotan, gomendatzen da euskarazko eta gaztelaniazko kopia bana ematea ikasleei. Horretarako, galdetegiko galderen kopia bat bidaliko da posta elektronikoko bidez, PDF formatuan.
- **R** atalean zehaztu da zer informazio aurki daitekeen **Tableau**-n, eta nola eskuratu txosten horiek, ezinbestekoak baitira emaitzen analisia ongi egiteko.
- Educa gida eguneratu da. Gida horretan jarraibideak ematen dira ISEK erabiltzaileak lortzeko, ikasleak matrikulatzeko, salbuespenak markatzeko, emaitzak sartzeko, txostenak lortzeko (ikaslearenak nahiz ikastetxearenak) eta Tableau-n sartzeko.
- Banakako txostenak ezin izanen dira eskuratu ekainaren 7ra arte; mesedez, kontuan har ezazue familien eta lehen hezkuntzako 4. mailako tutoreen arteko ekaineko bilerak programatzerakoan.

Aurreko ikasturteetako berritasun hauek indarrean jarraitzen dute:

- 2021-2022 ikasturtetik aurrera, **“Zikloko Koordinatzaile”** lanpostu osagarria duten irakasleek EDUCAn, **Tableau** atalean, ebaluazio diagnostikoen emaitzak ikusteko aukera dute.
- 2021-2022 ikasturtetik aurrera, **Educa txostenean (Tableau) item bakoitzeko asmatutako ehunekoan** azterketa xehatua egiten da ebaluatutako konpetentzia bakoitzean. Era berean, txosten horrek eduki-multzo bakoitzeko eta ebaluatutako prozesu bakoitzeko asmatutako ehunekoak jasotzen ditu.
- Ahozko ulermenerako audio-fitxategia posta elektronikoko bidez bidaliko zaio zuzendaritza-taldeari, proba baino eskola-egun bat lehenago: maiatzaren 8an, asteazkenean, euskarazko hizkuntza-gaitasunaren audioa; maiatzaren 9an, ostegunean, gaztelaniazko hizkuntza-gaitasunaren audioa, eta maiatzaren 13an, astelehenean, ingelesko hizkuntza-gaitasunaren audioa.
- Buruzko kalkuluko eragiketen enuntziatuak dituen dokumentua posta elektronikoz bidaliko zaio zuzendaritza-taldeari proba egin baino egun bat lehenago: 2024ko maiatzaren 10ean, ostiralean.

A. Galde-sorta sozioekonomiko eta kulturala *online* aplikatzeko protokoloa

Hezkuntza Departamentuak ikasleek *online* galde-sortan ematen dituzten datuak konfidentziasunez eta izenik agertu gabe baliatuko dituela bermatzen du. Ebaluazio diagnostikoaren txostenean, ikastetxeek datu hauek izanen dituzte: indize sozioekonomiko eta kulturala, indize horren arabera gaitasun bakoitzerako estimatutako puntuazioak, eta baita gaitasun bakoitzerako Errendimendua-ISEK erregresio-zuzena dituzten grafikoak ere. Bertan ikastetxea zein tokitan dagoen adieraziko da.

Galde-sorta hobeki aplikatzeko, ikastetxeek jarraibide hauek bete beharko dituzte:

1. Lehen Hezkuntzako 4. ikasmilian ari diren ikasle guztiak bete beharko dute galde-sorta, (ebaluazio diagnostikoetatik **salbuetsita dauden ikasleek ere bai**).
2. Galde-sorta helbide honetan izanen da eskuragai:
<http://dpto.educacion.navarra.es/eed/>

3. Ikastetxeetako zuzendariak **Educa** aplikazio informatikoaren bidez jasoko dute erabiltzaile izenen eta pasahitzen zerrenda (matrikulaturiko ikasleak bezainbeste izen eta pasahitz, eta beste batzuk erreserba gisa).

Ikastetxearen ebaluazioa → Ebaluazio diagnostikoa → Galde-sortaren erabiltzaileak.

2024ko urtarrilaren 22tik aitzina eskuratzen ahalko dute zerrenda hori.

4. Ikastetxeko zuzendariak erabiltzaile izenak eta pasahitzak emanen dizkie LHko 4. ikasmilako tutore guztiei eta haiek **ausaz** banatuko dituzte beren ikasleen artean. Galde-sorta izengabea izan beharko da, eta, beraz, erabiltzaile bakoitzari ez zaizkio izenak eta abizenak esleitu behar.
5. Ikasle bakoitza erabiltzaile izen bat eta ausazko pasahitz bat erabiliz sartuko da galde-sortan.
KASU! Pasahitz hori behin **bakarrrik** erabil daiteke.
1. Indize sozioekonomiko eta kulturalari (ISEK) buruzko galdetegia ez da elebitan egonen, euskara hutsez edo gaztelania hutsez irakurriko da. Aldaketaren helburua da formatua argiagoa

izatea, galderak errazago irakurtzeko. Horregatik, etxera eraman dezaten inprimatu nahi izatekotan, gomendatzen da euskarazko eta gaztelaniazko kopia bana ematea ikasleei. Horretarako, galdetegiko galderen kopia bat bidaliko da posta elektronikoko bidez, PDF formatuan.

6. Prestatzea. Aplikazioa egin aurretik, tutoreek, ikasleek eta familiek askatasunez praktika dezakete, aplikazioan sartzeko **probako erabiltzaile-izen eta pasahitz** hauek erabiliz:

Irati

Probako erabiltzaile-izena: Irati
Probako pasahitza: Irati

Noiznahi eta nornahi sar daiteke *probako erabiltzaile* modura. Horrek aukera ematen die tutoreei, ikasleei eta familiei galde-sorta aztertzeko eta datuak betetzeko baina **aplikazioan gorde gabe**, ez baitira gordeko *Bidali* botoian *klik* eginda ere.

Ikastetxeak berak erabaki dezake nola bete behar den galde-sorta. Nolanahi ere, komenigarritzat jotzen da tutoreak prestakuntzako tutoretza-jarduerak egitea, ikasleek galde-sorta eta betetzeko jarraibideak ezagutzeko, eta galderei segurtasunez erantzuteko proba bete behar dutenean.

7. Aplikazio saioa. Tutoreak antolatuko du saio hau eta ikastetxeko ordenagailuak erabiliko ditu horretarako. Ikasleak aplikazioan sartuko dira <http://dpto.educacion.navarra.es/eed/> helbidea erabiliz; tutoreak ikasle bakoitzari erabiltzaile eta ausazko pasahitz bat emanen dizkio, aplikazioan sartu eta galde-sorta bete dezan.

Erraz betetzen da, aldeztu aurretik prestatu bada. Nolanahi ere, alderdi hauek kontuan hartu behar dira:

- Gutxi gorabehera 30 minutu behar dira betetzeko.
- Galdera bakoitzean, ikasleak aukeren artean **erantzun bakarra** hautatu beharko du. Ikasleak noiznahi alda dezake erantzuna.
- Galde-sortan atzera eta aurrera egin daiteke.
- Galde-sorta bukatzeko eta erantzunak gordetzeko, *klik* egin behar da **Bidali** botoian. Hau egitea nahitaezkoa da erantzunak gordetzeko.
- Ikasleak galderaren bat erantzun gabe utzi badu, **Bidali** botoian *klik* egiten duenean aplikazioak ohartaraziko du, eta ikasleak galde-sorta betetzen segitzeko aukera izanen du edo bukatutzat emanen du **Horrela bidali** botoian *klik* eginez.

Badira erantzun gabeko galdera batzuk.
 Amaizteko, sakatu **Horrela bidali** botoia, edo, bestela, osatu galdera-sorta eta sakatu **Bidali** botoia

Horrela bidali.

- **Bidali** botoian *klik* egin eta galde-sorta bukatu ondoren, ezin izanen da berriz sartu galde-sortan erabilitako erabiltzaile izenarekin eta pasahitzarekin.
8. Epeak. Galde-sorta **2024ko urtarrilaren 29tik martxoaren 8ra arteko epean** bete beharko da. Epetik kanpo sartzan diren galde-sortak ez dira kontuan hartuko ikastetxeko ISEKa kalkulatzeko. Ez da komeni aplikazioa azken egunetarako uztea, gerta baitaiteke sartzeko arazoren bat konpondu behar izatea.
9. Ikastetxeek kontuan izan behar dute, gainera, ISEK galde-sortaren emaitzak beharrezkoak direla ez bakarrik Ebaluazio Diagnostikoen emaitzak testuinguruan kokatzeko, baita ikastetxeen behar asistentzialak ezagutzeko ere; batzuetan informazio hori Hezkuntza Departamentuak erreferentzia gisa har dezake noiz edo noiz beste jarduketara batzuetarako.

10. Oharrak eta zalantzak. Zalantzak Ebaluazio Atalean argi daitezke, bai evaledu@navarra.es helbide elektronikoaren bidez, bai 848 42 67 98 / 848 42 71 19 telefonoetara deituz.

B. Probak entregatzea eta zaintzea

1. Aurreko ikasturteetako prozedura erabiliko da eta zuzendaritza taldeko edozein kidek edo eskuordetzen den konfiantzazko edozeinek jasotzen ahalko ditu probak (sinadurak kontrolatuko dira jasotzean):
 - a) Lizarra, Lekaroz, Tafalla eta Tuterako ILZei atxikiriko ikastetxeek probak dagokien ILZren egoitzan jaso beharko dituzte, **2024ko martxoaren 25, 26 eta 27an**.
 - b) Iruñeko ILZri atxikiriko ikastetxeek probak Hezkuntza Departamentuko Ezkaba Aretoan jasoko dituzte (Liburutegi zaharra, beheko solairuan), **2024ko martxoaren 25, 26 eta 27an** 08:00etatik 15:00etara.
 - c) Irakasleentzako Laguntza Zentro (ILZ) horiei atxikitako ikastetxeren batek probak Iruñean jaso nahi baditu, edo ez dagokion beste ILZ batean, **posta elektronikoz jakinaraziko dio Ebaluazio Atalari, 2024ko martxoaren 4a baino lehen (evaledu@navarra.es)**.
2. Jaso diren probak zuzen daudela egiaztatu beharko da ikastetxean (koaderno kopurua, horien hizkuntza...). **2024ko apirilaren 10 (asteazkena)** izanen da Ebaluazio Atalari zeinahi gorabehera jakinarazteko azken eguna.
3. Zuzendaritzakoek proba hasteko **ordubete edo gutxiago** falta denean emanen dizkiote irakasle aplikatzaileei proba bakoitzerako behar diren koaderno guztiak. Koadernoak paketatuta egon beharko dira, eta proba hasteko unean irekiko dira.
4. Irakasle aplikatzaile eta zuzentzaileek erabat isilpean gorde beharko dute proben edukia, **2024ko maiatzaren 28era** arte. Egun horretatik aitzina probak aske eta irakasleen eskura geldituko dira.

C. Ebaluazio probak nork eginen dituzten

Oro har, **Lehen Hezkuntzako 4. Ikasmilan ari diren ikasle guztiek** egin behar dituzte ebaluazio probak eta, hala behar denean, hurrengo atalean azaltzen diren egokitzapenak edo salbuespenak eginen dira.

D. Ikasle salbuetsiak eta sarbide-egokitzapenak dituzten ikasleak

1. Educa aplikazioan “**Salbuetsita**” dauden ikasleak:
 - a) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak, **Curriculum Egokitzapen Esanguratsua duten LHko 4. mailako ikasleak, bi urteko edo gehiagoko curriculum-atzerapenagatik**.
 - b) LHko 2. mailako **Matematika eta/edo Hizkuntza** (gaztelania A/G ereduan edo euskara B/D ereduan) arloei dagozkien **ikaskuntzak gainditzeko errekurazio-planak** egiten ari diren ikasleak.
 - c) **Espainiako hezkuntza-sisteman berandu hasi diren** ikasleak, baldin curriculum-desfase larria badute eta Curriculuma Eguneratzeko Plana aplikatzen bazaie.
 - d) **Ikasteko hizkuntza ia ez jakiteagatik zailtasunak dituzten** ikasleak.

Kasu horietan ikasleek proba egiten ahalko dute (proba guztiak edo batzuk), bidezko egokitzapenak egiten ahalko zaizkie (kontuan izanik ikastetxeak bakarrik paperean duela proba eskura) edo bere curriculum mailako proba bat ematen ahalko zaie. Ikastetxeak, beraz, aukera du salbuetsitako ikasleei hobekien datorkien moduan jokatzeko.

Halakoetan, ikaslearen txostena eskuz edo Educa aplikazioa baliatuta egiten ahalko da. Bigarren aukera hori erabili nahi izanez gero, ikaslea "**Salbuetsita**" dagoela markatu beharko da **Educa** aplikazioan, haren emaitzak ez daitezen kontuan hartu ikastetxearen txostenean.

Ikastetxeek "Salbuetsita" dauden ikasleen erregistroan sartu beharko dituzte ikasle horiek Educan, maiatzaren 9tik maiatzaren 28a bitartean. Gainera, behar bezain garaiz bete beharko dute **Salbuetsitako Erregistroa** (I. eranskina). Erregistroa ikastetxean gorde beharko da (**ez da Ebaluazio Atalera igorri behar**).

2. Premia bereziak dituzten ikasleen emaitzak modu normalizatuan sartzen dira Educa aplikazioan:

- a) Desgaitasun sentsorial edo motor larria duten ikasleak: egokitzapen gehienak Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroak eginak dira, Hezkuntza Departamentuko Ebaluazio Atalarekin eta ikastetxeko orientazio departamentuarekin edo zuzendaritzarekin lankidetzan.
- b) 03, 04, 05, 07, 09, 11.¹ kategorietako hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleak: egin beharreko egokitzapenak orientatzaileak eginiko txosten psikopedagogikoan oinarrituko dira, eta ikastetxeak ikasle horiek ebaluatzeko egin ohi dituen egokitzapenen arabera izanen dira.

Egokitzapenak bakoitzaren hezkuntza premia berezien arabera egin beharko dira; banakakoak eta berariazkoak izan beharko dira, eta funtsean metodologikoak; ebaluazio prozedurekin zerikusia izan beharko dute eta, orobat, haietan ezin izanen da egin proben, testuen edo galderen edukiari buruzko oharrik, ñabardurarik eta interpretaziorik. Besteak beste, honako neurri hauek har daitezke:

- Denbora gehitzea. Kasu horietan, gehienez 20 minutukoa izatea gomendatzen da.
- Kokapen egokia ikasgelan.
- Froga beste gela batean egitea.
- Inguru egokia (argiteria, akustika...).
- Egiaztatzea ikasleek ulertu dituztela proba egiteko jarraibide orokorrak eta, kasua bada, ariketa edo ataza zehatz baten berariazko jarraibideak.
- Proba ahoz egitea (zati batean edo osorik).
- Egiaztatzea ikasle bakoitza proba egiten ari dela arreta edo denbora gehiegi galdu gabe.
- Erantzuna adierazteko modua ulertu dela egiaztatzea.
- Ikaslearen ahalegina indartu eta estimulatzea, hari lagunduz ariketa edo proba egiten segi dezan eta, orobat, gainbegiraturaz ariketa entregatu baino lehen galdera guztiak erantzun dituela.

Ikastetxeek garaiz bete beharko dute **Egokitzapenen Erregistroa** (II. eranskina) eta ikastetxean gorde beharko da (**ez da Ebaluazio Atalera igorri behar**). Zuzendaritza taldeak eta/edo orientatzaileak, dagokienean, probak aplikatuko dituzten irakasleei xehe-xehe

¹ EDUCA Programaren HPBPD1 errolda eguneratzeko llogida liburua. 2022ko iraila.

adieraziko diete zer egokitzapen egin behar diren eta, hala behar denean, baita irakasle zuzentzaileei ere.

Edozein zalantza izanez gero, Ebaluazio Atalera jo dezakete.

E. Probak betetzea

- Probak **bolaluma urdin edo beltzez** bete beharko dira.
- Probetan **EZINGO dute kalkulagailurik erabili.**
- Zirriborro papera:
 - Matematikako gaitasun proban ikasleek orri zuriak erabiltzen ahal dituzte eragiketetarako (kalkulu mentalerako izan ezik), baina oharrak ebaluazio koadernora pasatu beharko dituzte galderak irekiak direnean eta urratsak edo planteamenduak eskatzen direnean.
 - Era berean, hizkuntza-gaitasunetan, ikasleek zirriborro papera erabiltzen ahal dute probaren lehen zatian oharrak hartzeko (entzumena) eta idazmenaren atala prestatzeko (hala ere, koadernotxoan dagoen espazioa ezinbestez erabili behar dute).
 - Ez da zirriborro papera jasoko.

F. Aplikazio fasea prestatzea

- Zuzendariak Protokolo hau irakasle aplikatzaileen esku utzi beharko dute, aplikatzen hasi baino 72 ordu lehenago, gutxienez. Nolanahi ere, gomendatzen da taldean aztertzea bai protokoloa, bai ebaluazio prozesu osoaren plangintza.
- Arreta berezia jarriko da ingelesezko, gaztelaniazko eta euskarazko hizkuntza-gaitasunaren probak aplikatzean; izan ere, audio-erreproduzigailua erabili behar da, eta berariazko jarraibideak dituzte.
- Tutoreek lana prestatuko dute proba hau ezarritako ordua baino lehen bukatzen duten ikasleentzat, lanean jarrai dezaten ikaskideak molestatu gabe.
- Ikastetxeek egokitzen jotzen dituzten informazio eta motibazio neurriak hartuko dituzte, egitekoa onartzeko eta lanerako giro egokia sortzeko.

G. Aplikazioa

1. Ikastaldeari eskola ematen dioten irakasleek aplikatuko dituzte probak, baina ez une horretan ebaluatzen ari den gaitasunarekin zuzenean lotutako irakasleek. Horren ondorioz, ingelesezko gaitasunaren proba ez du ingeleseko espezialistak aplikatuko.
2. Aurreko hori betetzerik ez dagoenean, ebaluatoriko ikastaldeari eskolarik ematen ez dion irakasle batek aplika dezake proba.
3. Aplikazioan zehar, irakasle aplikatzaileak konpromisoa hartuko du protokolo honetan dauden jarraibideei fideltasunez jarraitzeko eta ez du emanen proben, galderen edo testuen edukari buruzko argibiderik, ñabardurarik eta interpretaziorik. Aplikatzailearen eginkizuna da errespetuzko eta bakarkako lan giroa bermatzea, eta ikasleei honako hauen antzeko mezuak emanen dizkie: *“irakur ezazu arretaz”, “jarraitu lanean”, “galderaren bat ulertzen ez baduzu, segi hurrengoak egiten eta, gero, saiatu berriro”, “baduzu erreparatzeko denbora”...* Haren lana behar bezala betetzeko, aplikatzaileak ikasgela zaintzen egon behar du proba nola garatzen den ikusiz, ikasleek arretaz lan egin dezaten eta duten denbora ahalik eta gehien aprobetxa dezaten.
4. Aplikatzaileak ikasleei jakinaraziko die proba oso garrantzitsua dela, Nafarroako ikasle guztiak egiten ari direla eta ahalik eta ongien egiten saiatu behar dutela, tutoreak gurasoei emaitza emanen diela ekainean, eta abar. Sentsibilizazio lan hori oso garrantzitsua da ikasleen inplikazioa eta ahalegina sustatzeko, eta ikastetxean aurreikusitako lan-planaren arabera egin daiteke. Hala ere, **irakasleek kontuz ibili beharko dute ikasleengan**

gehiegizko presiorik ez eragiteko; izan ere, ikasleek ikasgelako zereginen beste jarduera bat balitz bezala bizi beharko dituzte probak.

5. Aplikatzaileak ikasleei jakinaraziko die ikasgelan egon behar dutela proba bukatu arte; lehenago bukatzen badute, tutoreak proposaturiko lanak egin beharko dituztela, eta ez dutela gainerako ikaskideen lana galarazi behar. Aplikatzailea ikasleek egin beharreko lanaren jakitun izanen da, eta lan hori egiten dela bermatuko du.
6. Aplikatzaileak zerrenda bat izanen du taldeko kide guztiekin, baita salbuetsita dauden ikasleen erregistroa ere. Zerrenda irakurriko du, bertaratu gabeen gaineko oharra jasoko du eta, salbuetsita dagoen ikasleren batek proba eginez gero, S letra (salbuetsia) idatziko du koadernoan proba bukatzean.
7. Egokitzapenak behar dituen ikasleren bat egonez gero, aplikatzaileari behar bezala jakinaraziko zaio nola eta norekin jardun behar duen. Horretarako, protokolo honen E.2 atala irakurri behar du. **Arreta berezia behar duten ikasleak sentikortasunez eta arretaz tratatuko ditu.**
8. Bermatuko du ikasleen mahaien artean behar besteko tartea dagoela, lana banakakoa izan dadin. Hori hala dela bermatuko du saio guztian zehar.
9. Dena prest dagoenean, koadernoan paketea ireki eta koadernoak banatu beharko ditu. Azaleko datuak betetzeko esan ondoren, probaren koadernoan dauden jarraibideak irakurriko ditu, eta esanen die galdera irekiak daudela, eta baita itxiak ere, eta azken horietan erantzun bat hautatu behar dutela (A, B, C edo D). Esanen die, orobat, galdera irekietan erantzuna idatzi behar dutela galderaren ondoren dagoen zuriunean.
 - Matematika gaitasuneko probako ariketetan behin eta berriz azpimarratuko die problema ebazteko **urratsak edo planteamendua idatzi behar dituztela**, galderaren enuntziatuan hala eskatzen bada.
10. Ikasleen zalantza orokorrak argituko ditu, eta adieraziko die bakarka egin beharko dutela lan; zerbait ulertzen ez badute, berriz ere irakurtzeko eskatuko die, edo ondoko galderara pasatzeko. Ikasleek proban zehar noiznahi berrikusten ahalko dituzte aurreko galderak.
11. Behin zalantza guztiak argitu ondoren, arbelean idatziko ditu probaren hasierako eta bukaerako orduak. Ingeleseko hizkuntza-gaitasunean eta matematika gaitasunean gehienez ere 60 minutu emanen dira (matematika probaren kasuan, 60 minutuak zenbatuko dira buruzko kalkulua ariketa bukatutakoan); gaztelaniazko eta euskarazko hizkuntza-gaitasunetan, berriz, 70 minutu. Denbora erreala edo erabilgarria dela ulertzen da. Une horretatik aurrera hasiko dira kontatzen probako 60 edo 70 minutuak.
12. Behin proba hasita, aplikatzaileak ez du inongo argibiderik edo erantzunik emanen, eta probaren edukari buruzko galderarik egiten badiote, galdera berriz ere irakurtzeko edo ondoko galderara pasatzeko gomendatuko die.
13. Bukatzeko 10 minutu falta direnean, denbora-tarte hori dutela adieraziko die ikasleei. Gaztelaniazko eta euskarazko hizkuntza-gaitasuneko probetan, proba bukatzeko 30 minutu falta direnean, denbora hori geratzen zaiela gogoraraziko die ikasleei, eta iradokiko, halaber, idazketa ariketa egiten hasteko.
14. Probaren denbora bukatzean, aplikatzaileak koaderno guztiak bilduko ditu, eta ikastetxeko jarraibideei lotuko zaie bertaratu gabeko ikasleek proba beste une batean egin dezaten eta, ondoren, probak zuzen daitezen.
15. Ebaluazio Atalak probak aplikatzeko moduaren kalitate kontrola egingen du, ikastetxeen ausazko lagin batean. Kontrol hori egiteko, atalak izendaturiko langileak egonen dira probak aplikatzen diren saioan, eta protokolo hau betetzen den egiaztatuko dute. Probak egoki zuzendu diren ere egiaztatzen ahalko da.

H. Proba egunean etorri ez diren ikasleak

Ebaluazio proba hauek Lehen Hezkuntzako 4. Ikasmilako ikasle guztiek egin behar dituzte. Probaren egunean ez dauden ikasleek lehenbailehen egin beharko dute proba, ikastetxe bakoitzak finkaturiko berreskurapen planaren arabera.


Posible izanez gero, erantzunak EDUCA aplikazioan sartuko dira eta, hala egiten ez bada, ikastetxeak aukera dauka probak zuzendu eta ikaslearen txostena eskuz idazteko, horretarako erabiliz Hezkuntza Departamentuaren webgunean ikastetxeen eskura jarritako materiala (erantzun zuzenak, ebaketa-puntuak eta asmatze-ehunekoak).

I. Berariazko jarraibideak gaztelaniazko hizkuntza-gaitasuneko probarako

1. Hezkuntza Departamentuak **maiatzaren 9an (ostegunean) bidaliko dio audio-fitxategia zuzendaritza-taldeari, mezu elektronikoko bat igorri**z evaledu@navarra.es helbidetik. Aplikatzaileak egiaztatu beharko du audio hori jaits daitekeela eta ongi entzun daitekeela ikastetxeak aukeratzen duen euskarrian.
2. **Behar bezain goiz** egiaztatu beharko da gelako audio erreproduzigailua ongi dabilela eta gelako leku guztietatik entzuten dela.
3. Ikasleen koadernotxoko jarraibideak oso xeheak dira; ozenki eta mantso irakurriko dira, probaren denbora hasi aurretik. Bertan, probaren hiru zatiei buruzko argibideak ematen dira: ahozkoaren ulermena, irakurrizko ulermena eta idatzizko produkzioa. Hona hemen funtsezko gaiak:
4. **Entzumena**
 - a) Ikasleek 2 minutu izanen dituzte koadernoko galderak irakurtzeko, eskatzen zaienaren alde aurreko ideia bat egin dezaten.
 - b) Jarraian, 3 aldiz entzuten dute entzunaldi bat.
 - c) Entzunaldien artean 60 segundoko etenak daude. Tarteko etenetan galderak erantzuten has daitezke, eta horrela, ondoko entzunaldiari begira, ulertu ez duten horri errepara diezaioke.
 - d) Entzunaldia bukatu ondoren, ikasleek dakizkiten galderak osatuko dituzte eta proba egiten segituko dute, norberak bere erritmora.
 - e) Hasierako bi minutuetan eta errepikapenen arteko isilunetan isilik egon behar dutela gogoraraziko diegu ikasleei.
5. **Irakurmena**: 2 testu irakurriko dituzte, eta irakurritakoarekin loturiko galderei erantzunen diete.
6. **Idazmena**: testu txiki bat idatziko dute, koadernoaren atal horretako jarraibideei jarraikiz. Proba hasi aurretik, ikasleei eskatuko diegu koaderno ireki eta idazmenari dagokion zatia begiratzeko.
 - a) Esanen diegu lehen paragrafoan azaltzen dela zer egin behar duten, eta bakoitzak bere gisa irakurri beharko duela, zati horretara iristean.
 - b) Ohartaraziko diegu zenbait galdera agertzen direla hor, eta argituko diegu ez direla haiek erantzun beharreko galderak, baizik eta idazterakoan haiendako lagungarri izan daitezkeen ideiak. Ez da nahitaezkoa ideia horiek guztiak lantzea, eta badute aukera beste ideia batzuk ekartzeko.
 - c) Eskatuko diegu begira dezatela zer espazio utzi den zirriborrorako; izan ere, ezinbestekoa da hura erabiltzea, puntuatu egingen baita. Gure ideiak antolatzeke balio du, eta ez da derrigorrezkoa hartan ongi eta txukun idaztea.
 - d) Ikasleek ez badute zirriborrea erabiltzeko ohiturarik, horri buruzko galderak onartzen ahalko dira.
 - e) Gogoraraziko diegu idatzizko lana lerrodun orrialdean jarri behar dela eta ez dela ezinbestekoa dagoen espazio guztia betetzea.
7. Aplikatzaileak galdetuko du ba ote den zalantzarik probaren gainean, hiru zatietako baten gainean, egin behar dutenaren gainean, etab.; eta zalantza horiek argituko ditu, ikasle guztiendako erabat argi gelditu arte.
8. Zalantzak argituta, gogoraraziko du probaren lehen zatian **AHOZKO ULERMENA** ebaluatzen dela eta une oro isilik egon behar dela, galderak irakurtzeko aurreko minutuak eta errepikapenen artekoak barne. Arbelean idatziko du probaren hasierako eta bukaerako ordua, kontuan hartuta esleitutako denbora, guztira, **70 minutu**koa dela eta une horretan

hasiko dela zenbatzen. Esanen die 2 minutuz AHOZKO ULERMENAREN galderak irakurri behar dituztela eta, denbora hori pasatu ondoren, audio ekipoa martxan jarriko duela.

9. Ondoko taulan aplikatzaileari esaten zaio zeintzuk diren ENTZUMENA edo entzumen ataleko jarduerak eta denborak:



10. Proba bukatzeko 30 minutu falta direnean, ikasleei denbora hori falta dela gogoraraziko die, eta iradoki, halaber, idazketa ariketari ekiteko.

Hona hemen zenbait zalantza, une horretan edo proban zehar sor daitezkeenak:


- *Nahitaezkoa da galdera guztiez hitz egitea?* Ez, baina ideia horiei guztiei buruz hitz egiten ez badugu, geure buruari galdetu behar diogu ea idazten ari garenekin argi uzten ari garen azaldu beharreko guztia.
- *Zer egiten da zirriborro batean?* Gure ideiak planifikatzeko balio du. Ikusi paragrafotan banatuta dagoela: behin betiko testua antolatzen laguntzen digu. Ez du axola zirrimarratzen badugu, letra txarra erabiltzen badugu edo esaldi eta ideia solteak idazten baditugu. Behin betiko testuak ez du zertan berdin-berdina izan, hobetzen ahalko dugu.
- *Nahikoa da zirriborroaren espazioa betetzea?* Ez, testua lerroetan idatzi behar da.
- *Lerro guztiak bete behar dira?* Ez da beharrezkoa.
- *Zergatik dago esaldi bat idatzita?* Zuen testua hasten laguntzeko, idatzita dagoena osatu behar duzue.

J. Berariazko jarraibideak euskarazko hizkuntza-gaitasuneko probarako

1. Hezkuntza Departamentuak **maiatzaren 8an (asteazkenean) bidaliko dio audio-fitxategia zuzendaritza-taldeari, mezu elektronikoko bat igorri evaledu@navarra.es helbidetik**. Aplikatzaileak egiaztatu beharko du audio hori jaits daitekeela eta ongi entzun daitekeela ikastetxeak aukeratzen duen euskarrian.
2. **Behar bezain goiz** egiaztatu beharko da gelako audio erreproduzigailua ongi dabilela eta gelako leku guztietatik entzuten dela.
3. Ikasleen koadernotxoko jarraibideak oso xeheak dira; ozenki eta mantso irakurriko dira, probaren denbora hasi aurretik. Bertan, probaren hiru zatiei buruzko argibideak ematen dira: ahozko ulermena, irakurritzko ulermena eta idatzizko produkzioa. Hona hemen funtsezko gaiak:
 4. Entzumena
 - a. Ikasleek 2 minutu izanen dituzte koadernoko galderak irakurtzeko, eskatzen zaienaren alde aurreko ideia bat egin dezaten.
 - b. Jarraian, 3 aldiz entzuten dute entzunaldi bat.
 - c. Entzunaldien artean 60 segundoko etenak daude. Tarteko etenetan galderak erantzuten has daitezke, eta horrela, ondoko entzunaldiari begira, ulertu ez duten horri errepara diezaioke.
 - d. Entzunaldia bukatu ondoren, ikasleek dakizkiten galderak osatuko dituzte eta proba egiten segituko dute, norberak bere eritmorra.
 5. Irakurmena: 2 testu irakurriko dituzte, eta irakurritakoarekin loturiko galderei erantzunen diete.
 6. Idazmena: testu txiki bat idatziko dute, koadernoaren atal horretako jarraibideei jarraikiz.
 - a) Proba hasi aurretik, ikasleei eskatuko diegu koaderno ireki eta idazmenari dagokion zatia begiratzeko.
 - b) Esanen diegu lehen paragrafoan azaltzen dela zer egin behar duten, eta bakoitzak bere gisa irakurri beharko duela, zati horretara iristean.
 - c) Ohartaraziko diegu zenbait galdera agertzen direla hor, eta argituko diegu ez direla haiek erantzun beharreko galderak, baizik eta idazterakoan haiendako lagungarri izan daitezkeen ideiak. Ez da nahitaezkoa ideia horiek guztiak lantzea, eta badute aukera beste ideia batzuk ekartzeko.
 - d) Eskatuko diegu begira dezatela zer espazio utzi den zirriborrorako; izan ere, ezinbestekoa da hura erabiltzea, puntuatu egingen baita. Gure ideiak antolatzeke balio du, eta ez da derrigorrezkoa hartan ongi eta txukun idaztea.
 - e) Ikasleek ez badute zirriborroa erabiltzeko ohiturarik, horri buruzko galderak onartzen ahalko dira.
 - f) Gogoraraziko diegu idatzizko lana lerrodun orrialdean jarri behar dela eta ez dela ezinbestekoa dagoen espazio guztia betetzea.
 7. Aplikatzaileak galdetuko du ba ote den zalantzarik probaren gainean, hiru zatietako baten gainean, egin behar dutenaren gainean, etab.; eta zalantza horiek argituko ditu, ikasle guztiendako erabat argi gelditu arte.
 8. Zalantzak argituta, gogoraraziko du probaren lehen zatian AHOZKO ULERMENA ebaluatzen dela eta une oro isilik egon behar dela, galderak irakurtzeko aurreko minutuak eta errepikapenen artekoak barne. Arbelean idatziko du probaren hasierako eta bukaerako ordua, kontuan hartuta esleitutako denbora, guztira, **70 minutu**koa dela eta une horretan

hasiko dela zenbatzen. Esanen die 2 minutuz AHOZKO ULERMENAREN galderak irakurri behar dituztela eta, denbora hori pasatu ondoren, audio ekipoa martxan jarriko duela.

9. Ondoko taulan aplikatzaileari esaten zaio zeintzuk diren ENTZUMENA edo entzumen ataleko jarduerak eta denborak:



10. Proba bukatzeko 30 minutu falta direnean, ikasleei denbora hori falta dela gogoraraziko die, eta iradoki, halaber, idazketa ariketari ekiteko.

Hona hemen zenbait zalantza, une horretan edo proban zehar sor daitezkeenak:

- *Nahitaezkoa da galdera guztiez hitz egitea?* Ez, baina ideia horiei guztiei buruz hitz egiten ez badugu, geure buruari galdetu behar diogu ea idazten ari garenekin argi uzten ari garenean azaldu beharreko guztia.
- *Zer egiten da zirriborro batean?* Gure ideiak planifikatzeko balio du. Ikusi paragrafotan banatuta dagoela: behin betiko testua antolatzen laguntzen digu. Ez du axola zirrimarratzen badugu, letra txarra erabiltzen badugu edo esaldi eta ideia solteak idazten baditugu. Behin betiko testuak ez du zertan berdina izan, hobetzen ahalko dugu.
- *Nahikoa da zirriborroaren espazioa betetzea?* Ez, testua lerroetan idatzi behar da.
- *Lerro guztiak bete behar dira?* Ez da beharrezkoa.
- *Amaitu al dezaket testua nire esaldi batekin?* Bai.

K. Berariazko jarraibideak ingelesezko hizkuntza-gaitasuneko probarako


Jarraibide orokorrez gain, honako hauek ere hartuko dira kontuan:

1. Hezkuntza Departamentuak **maiatzaren 13an (astelehenean) bidaliko dio audio-fitxategia zuzendaritza-taldeari, mezu elektronikoa bat igorri evaledu@navarra.es helbidetik**. Aplikatzaileak egiaztatu beharko du audio hori jaits daitekeela eta ongi entzun daitekeela ikastetxeak aukeratzen duen euskarrian.
2. **Behar bezain goiz** egiaztatu beharko da gelako audio erreproduzigailua ongi dabilela eta gelako leku guztietatik entzuten dela.
3. Aplikatzaileak azalpen guztiak taldearen ikas-hizkuntzan emanen ditu: gaztelaniaz G/A ereduko ikasleei eta euskaraz B/D eredukoei.
4. Koadernoaren azalean eskatutako datuak bete ondoren, probak hiru zati dituela azalduko du:
 - A) **LISTENING** (entzumena): 3 aldiz entzuten da ingelesezko grabaketa bat, eta ondoren entzundakoaren gaineko galderari erantzuten zaie.
 - B) **READING** (irakurmena): 2 testu irakurriko dituzte ingelesez, eta irakurritakoarekin loturiko galderari erantzuten diete.
 - C) **WRITING** (idazmena): testu txiki bat idatziko dute, koadernoaren atal horretako jarraibideei jarraikiz.

Ikasleek nahitaez bete beharko dute zirriborroa egiteko edo ideiak antolatzeko espazioa, koadernotxoan writing-aren aurretik dagoena.

5. Ondoren, azalduko zaie **LISTENING** ariketa (entzumena) honela eginen dela:
 - Ikasleek 2 minutu izanen dituzte *listening*eko galderak irakurtzeko, aldeztu aurretik jakin dezaten zer eskatzen zaien.
 - Ondoren, 3 aldiz entzuten dute ingelesezko grabaketa bat.
 - Entzunaldien artean 60 segundoko etenaldiak daude. Tarteko etenaldietan galderak erantzuten has daitezke, eta, hala, ondoko entzunaldiari begira, ulertu ez duten horri errepara diezaiokete.
 - Entzunaldietan oharrak hartzen ahalko dituzte, zirriborro-orrian.
 - Entzunaldiak bukatu ondoren, ikasleek dakizkiten galderak osatuko dituzte eta proba egiten segituko dute, bakoitzak bere erritmoan.

Ondoko taulan aplikatzaileari esaten zaio zeintzuk diren **LISTENING** edo entzumen ataleko jarduerak eta denborak:



6. Aplikatzaileak galdetuko du zalantzarik baden probari buruz, hiru zatietako bati buruz, egin behar dutenari buruz, etab.; eta zalantza horiek argituko ditu, aurreko urratsak errepikatuz, harik eta ikasle guztiek argi eta garbi izan arte.
7. Behin zalantzak argiturik, arbelean idatziko du probaren hasiera eta amaiera ordua, kontuan izanik proba egiteko guztira 60 minutu daudela eta denbora une horretan bertan hasiko dela. Esanen die 2 minutuz *listeningeko* galderak irakurri behar dituztela eta, denbora hori pasatu ondoren, audio ekipoa martxan jarriko duela.
8. Proba bukatzeko 20 minutu falta direnean, ikasleei denbora hori falta dela gogoraraziko die, eta iradoki, halaber, idazketa ariketari ekiteko (*WRITING*).

Hona hemen zenbait zalantza, une horretan edo proban zehar sor daitezkeenak:

- *Nahitaezkoa da galdera guztiez hitz egitea?* Ez, baina ideia horiei guztiei buruz hitz egiten ez badugu, geure buruari galdetu behar diogu ea idazten ari garenekin argi uzten ari garen azaldu beharreko guztia.
- *Zer egiten da zirriborro batean?* Gure ideiak planifikatzeko balio du. Ikusi paragrafotan banatuta dagoela: behin betiko testua antolatzen laguntzen digu. Ez du axola zirrimarratzen badugu, letra txarra erabiltzen badugu edo esaldi eta ideia solteak idazten baditugu. Behin betiko testuak ez du zertan berdin-berdina izan, hobetzen ahalko dugu.
- *Nahikoa da zirriborroaren espazioa betetzea?* Ez, testua lerroetan idatzi behar da.
- *Lerro guztiak bete behar dira?* Ez da beharrezkoa.

L. Berriazko jarraibideak matematika gaitasuneko probarako

Además de las instrucciones señaladas con carácter general, se tendrán en cuenta las siguientes:

1. Probaren lehen zatia kalkulu mentaleko ariketa bat da, hiru eragiketa eta hiru arazoz osatua. Zati hori ez da sartuko ezarritako 60 minutuko denboraren barruan, hau da, kalkulu mentala jarraian agertzen diren jarraibideei jarraituz egiten da, eta amaitutakoan, atsedenik hartu gabe, denbora zenbatzen hasten da.
2. Hezkuntza Departamentuak **maiatzaren 10ean (ostiralean) bidaliko dio audio-fitxategia zuzendaritza-taldeari, mezu elektronikoa bat igorri eza eualedu@navarra.es** helbidetik. Aplikatzaileak egiaztatu beharko du audio hori jais daitekeela eta ongi entzun daitekeela ikastetxeak aukeratzen duen euskarrian.
3. Kalkulu mentalaren ariketa honela aplikatuko da:
 - Giro egokia ezartzen dugu, isiltasuna eta arreta.
 - 1. ariketa egingo dugula azalduko dugu, eta koadernoan ageri den enuntziatua ozenki irakurriko dugu.

1. Zure irakasleak 3 arazo eta 3 eragiketa irakurriko ditu ozen.
2. Hiru aldiz jarraian errepikatuko ditu, eta etenaldi txiki bat utziko du errepikapen bakoitzaren artean.
3. EZIN duzu eragiketarik egin paperean; buruz egin behar dituzu.
4. Idatzi emaitza zenbakiekin taula honetan:

- Ariketa hasiko dugu, eragiketa eta arazo bakoitza hiru aldiz jarraian ozenki irakurriko da; errepikapen bakoitzaren artean bost segundo inguruko etenaldi labur bat edo behar dena utziko da.
*Azalpena: A enuntziatua hiru aldiz jarraian irakurri behar da, gero hiru aldiz jarraian B enuntziatua, eta horrela hurrenez hurren.
 - Intonazio egokia eta bokalizazio ona erabiliko dugu, eta eragiketa edo arazo bakoitzaren arteko etenaldi argia egingo dugu, edo nahikoa argi utziko dugu hurrengora igaroko gara.
 - Ikasleek EZIN dituzte datuak idatzi irakurri ahala, ezta zirriborroan eragiketak egin ere; konponbidea zifrekin bakarrik idatzi behar dute.
4. Kalkulu mentalaren zatia amaitu ondoren, 60 minutuak zenbatzen hasten dira, eta ikasleek probaren gainerakoarekin jarraitzen dute, beren erritmoan.
 5. Jaso behar ez den zirriborro-orri bat emango dugu.
 6. Ikasleei gogoraraziko diegu, galdera irekien edo arazoen kasuan, nahitaezkoa dela prozedurak koadernotxoan jasotzea, eta ez soilik konponbideak (zirriborroan bakarrik egin ez dezaten).
 7. Ezin da kalkulagailurik erabili probaren une batean ere.

8. Ezin da kalkulagailurik erabili probaren une batean ere.

M. Probak aplikatzeko egutegia eta iraupena:

1. Proben iraupena honako hau da:

- **Gaztelaniako hizkuntza-gaitasuna** eta **euskarazkoa**: **70** minutu.
- **Matematika** gaitasuna: buruzko kalkulua + 60 minutu.
- **Ingeleseko hizkuntza-gaitasuna**: **60** minutu.

2. Aplikazioa: goizeko lehen orduetan egingo dira, honako egutegi honen arabera:

Osteguna Maiatzak 9	Ostirala Maiatzak 10	Astelehena Maiatzak 13	Asteartea Maiatzak 14
Euskarazko hizkuntza-gaitasuna (B/D ereduak)	Hizkuntza-gaitasuna gaztelaniaz (A/G ereduak eta B/D ereduak)	Matematika gaitasuna (A/G ereduak eta B/D ereduak)	Ingeleseko hizkuntza-gaitasuna (A/G ereduak eta B/D ereduak)

N. Proben zuzenketa

1. Epeak. Probak aplikatu ondoren, haiek zuzentzeari ekingo zaio. Gomendagarria da aplikazioa egiten den astean edo ondorengoan probak zuzentzea: zuzenketa amaitzeko azken eguna **maiatzaren 28a** (asteartea) izango da.
2. Hauek izanen dira irakasle zuzentzaileak:

Proba	Irakasle zuzentzailea
Hizkuntza-gaitasuna gaztelaniaz	Ahal bada, talde horretakoak ez diren mailako tutoreak
Euskarazko hizkuntza-gaitasuna	
Matematika gaitasuna	
Ingeleseko hizkuntza-gaitasuna	Ingeleseko espezialistak; ahal dela, mailakoak baina ez taldekoak

3. Proba bakoitzak zuzenketa koaderno bat du, eta bertan zehazten dira galdera irekiak zuzentzeko irizpideak. Koadernoak ikastetxearen eskura egonen dira helbide honetan:

<https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/infantil-y-primaria-curso-2023-20234>

Koadernoak **pasahitz baten bidez babestuko** dira. Ikastetxeko zuzendariari pasahitz hori emanen zaio probak aplikatu aurreko astean, eta hark irakasle zuzentzaileei jakinaraziko die.

Aplikazio egun bakoitzean, 14:00etatik aitzina, webgunera igoko dira egutegi ofizialaren arabera aplikatu diren probak, irakasleek zuzentzen hasteko modua izan dezaten.

Ikaslearen erantzuna zuzenketa irizpideekin alderatu ondoren, zuzentzaileak ikaslearen koadernoan jarriko du puntuazioa edo behar den kodea (0, 1, 2...).

Galdera itxiak ez dira zuzendu behar. Ikasleen erantzunak Educa aplikazio informatikoan sartuko dira eta automatikoki emanen zaie puntuazioa.

O. Ikasleen matrikulazioa eta datuen sarrera

1. Epeak. Ikasleak matrikulatzeko eta datuak sartzeko lehen eguna **maiatzaren 9a** izanen da, eta azken eguna, **maiatzaren 28a**.
2. Datuak Educan sartu ahal izateko, ezinbestekoa da ikastetxeko zuzendariak ebaluatzen ahal diren ikasle guztiak **matrikulatzea**. Urrats hori egiten da **“Ikastetxearen ebaluazioa”** → **“Ebaluazio diagnostikoa”** → **“Ikasleak”** menutik. Talde bakoitzaren matrikula automatikoki egiten da zuzendariak inprimakia bidaltzen duen lehen aldian (**“Bidali”** beheko botoiarekin).
3. Zuzendariak LHko 4. mailako ikasle guztiak matrikulatzen ahal ditu, edo, bestela, tutore bakoitzak bere taldeko ikasleak matrikula ditzake.
4. Ikasleen koadernoak zuzendu ondoren, Educa aplikazio informatikoan sartu beharko dira bai galdera itxiei emandako erantzunak (A, B, C, D,...), bai galdera irekiei emandako puntuazioak (0, 1, 2...). Bi alderdi azpimarratu behar dira:
 - Galdera itxietan testu-kodea sartu behar da (A, B, C, D,...). Besterik ezean, hauxe agertuko da: NR (no responde), gaztelaniaz, edo EDE (ez du erantzuten), euskaraz. Aukera hori erabili behar da ikasleak erantzunik eman ez duenean, erantzun bat baino gehiago markatu dituen edo argi jakiterik ez dagoenean zer erantzun hautatu duen.
 - Galdera irekietan zenbaki-kodea sartu behar da (0, 1, 2,...). Zenbakizko kodetzeak ez du NR/EDE aukera onartzen. Gomendatzen da erantzunik ez denean 0 adieraztea, bete gabe utzi beharrean.

Hezkuntza Departamentuko webgunean eskuliburu txiki bat dago, datuak Educan sartzeko jarraibideekin (Educa Gida). Era berean, izan daitezkeen zalantzak Ebaluazio Atalean argitzen ahalko dira, posta elektronikoaren bidez (evaledu@navarra.es) edo telefono hauen bitartez: 848 42 67 98 / 848 42 71 19 / 848 42 47 75.

5. Funtsezkoa da ebaluatoriko ikasle guztien datuak zuzen erregistratu direla ziurtatzea, zeren eta datuak sartzeko epea bukatu ondoren ez baita aldaketarik egiten ahalko.

Tutoreak egiazta dezake zer dagoen Educan erregistraturik ikasle bakoitzari buruz. Era berean, zuzendariak bi formatutan ikus dezakete informazio hori (pantaila edo CSV fitxategia), baita egiaztatu ere ikaslerik ba ote dagoen datu edo erregistro osatugabe edo hutsak dituenik. Datuak falta badira edo akatsak badaude, Educa aplikazioak ikaslearen eta ikastetxearen txostenak sortuko ditu gorabehera hori kontuan harturik.

Dena den, Educa aplikazioak ez du uzten ezarritako epeetatik kanpora aldaketarik edo zuzenketa egiten. Hori hala izanik ere, ikastetxeak berak **esku**z zuzendu edo osatu ditzake txosten horiek, horretarako baliatuz aipatutako CSV fitxategiak eta Hezkuntza Departamentuaren webgunean eskuragai dagoen dokumentazioa. Eskulan hau neketsua izan daiteke. Beraz, komeni da datuak sartzean akatsak edo hutsegiteak saihestea eta zuzendariak erregistratu diren datuak gainbegiratzea gorago aipatutako CSV fitxategia erabiliz.

6. Egokitzapenak dituzten eta Educan "Salbuetsita" agertzen diren ikasleen datuak ez dira kontuan hartuko ikastetxeko txostenean edo ikastetxeko estatistikaren kalkuluan, haien galderak erregistratuagatik ere.
7. Salbuespenez, salbuetsirik ez dauden ikasleek ezin izan badute egin gaitasun baten edo guztien probarik, ez dira beteko Educan dagozkien erregistroak.
8. Ikastetxeko zuzendariak begiratuko du finkaturiko faseak eta epeak betetzen direla. Ebaluazio faseak jarraibideei jarraikiz egiten badira, Ebaluazio Atalak aukera du horien bilakaera gainbegiratzeko eta ikastetxeen kontsultei hobeki erantzuteko.

P. Ikaslearen txostenak eskuratzea

1. Ekainaren 7tik aurrera ikastetxeek txostenak eskuratu ahalko dituzte, Educa aplikazio informatikoaren bidez Txostenak ekainaren 28ra arte egonen dira eskuragai. Hezkuntza Departamentuko webgunean eskuliburu bat dago, txostenak eskuratzeko jarraibideekin (Educa gida).

GARRANTZITSUA: gogorazten dizuegu ikasleen eta ikastetxearen txostenak **ekainaren 28a baino lehen** deskargatu eta gorde behar direla.

2. Ikaslearen txostena eskuratzea:

Zuzendariak edo tutoreak bide honi segitu behar dio: **“Ikastetxearen ebaluazioa”** → **“Ebaluazio diagnostikoa”** → **“Ikasleak”**.

Beharrezkoa da ikasle bakoitzaren txostena sortzea, horietako bakoitzean sartu eta sakatu **“Bidali”**. Txosten guztiak sortu direnean, guztiak batera deskargatzen ahalko ditugu **“Inprimatu”** botoia sakatuta, edo ikasle bakoitzaren atalean sartuta eta **Word edo PDF ikonoan** klik eginez. Xehiago azaltzen da Educa gidan.

3. Honako informazio hau du:

- Gaitasun mailen definizio orokorra.
- Zer **maila** lortu den ebaluaturiko gaitasun bakoitzean.
- 500 puntuko batezbestekoa eta 100eko desbideratze tipikoa dituen **eskalara ekarritako puntuazioa**, gaitasun bakoitzerako, eta haien irudikapen grafikoa.

Gaitasun bakoitzerako, zuzenean lortutako puntuazioak 500eko eskalara ekartzen dira, ondoko adierazpen matematikoaren bidez:

$$y = 100 \cdot \frac{(x - \bar{X})}{DT} + 500$$

y da 500eko eskalara ekarritako puntuazioa

x da ikasleak zuzenean lortutako puntuazioa

\bar{X} da Nafarroako batezbestekoa ebaluaturiko gaitasunean

DT da Nafarroako desbideratze tipikoa ebaluaturiko gaitasunean

Puntuazioak eskala amankomun horretara ekartzeak aukera ematen du ikasleak proba bakoitzean zer errendimendu izan duen konparatzeko eta, orobat, Nafarroako batezbestekoarekin konparatzeko moduko informazioa izateko (Nafarroako batezbestekoa proba guztietan 500 da).

500eko puntuazioak ez du “gainditu” duenik esan nahi. Jakin badakigu puntuazio hori gaitasunaren 3. mailan dagoela (eskuarki, maila horren behealdean).

- Oharretarako gunea, tutore bakoitzak bete beharrekoa. Ebaluazio diagnostikoko txosten honen xedea da ikasle bakoitzarendako hobekuntza neurriak hartzen laguntzea, eta badu oharrak izeneko tarte bat, egokitzen jotzen den mezua idatzi ahal izateko.

Ikaslearen txostena tresna baliagarria da ekainean familiei emateko, tutoretza lanaren testuinguruan. Educa aplikazio informatikoak aukera ematen du ikastaldeko txosten guztiak artxibatze eta paperean inprimatzeko, modu erosoan.

Q. Ikastetxearen emaitzen txostena, PDF eta CSV formatuan:

1. Nola eskuratu ikastetxearen txostena Educan (ikastetxeko ikasleen emaitza orokorren txostena).

1. urratsa. “Ikastetxearen ebaluazioa” → “Ebaluazio diagnostikoa” → “Ikastetxearen txostena”

2. urratsa. Txostena PDF formatuan deskargatzen ahalko dugu “Txostenak” klikatuta, edo datu-basea edo kalkulu-orria deskargatu, “CSV” atalean sartuta.

2. PDF formatuko txostenak honako informazio hau du:

- Sarrera, irakurketa eta emaitzen barne-analisia errazteko, ISEK galdetegiari buruzko atal bat barne.
- Ikastetxeko ikasleen emaitzak gaitasun bakoitzean.
- Ikasleen ehunekoa gaitasun maila bakoitzean.
- Maiztasun grafikoak, puntuazio bakoitzerako.
- Ikastetxeak eta Nafarroak item bakoitzean lortutako erantzun zuzenen ehunekoa.
- Batez besteko puntuazioak ikasgelaz ikasgela.
- Batezbesteko eraldatuaren kontzeptuari buruzko azalpena.
- Emaitzak alderatzen dituzten grafikoak, gaitasunez gaitasun, eskala amankomun batera ekarritako puntuazioekin.
- Gaitasun bakoitzerako *Errendimendua-ISEK* erregresio-zuzena duten grafikoak, ikastetxea zein tokitan dagoen adieraziz.
- Irakasleen klaustroak ebaluazio diagnostikoko emaitzak aztertu eta baloratu beharko ditu. Datuen gaineko hausnarketa egin ondoren, hobekuntza ildoak proposatu beharko dira eta horren guztiaren berri eman beharko zaio eskola kontseiluari.
- Ikastetxeetako zuzendariak urtez urte egiten diren ebaluazioen txostenak gordeko dituzte, formatu elektronikoan.

3. Datuen fitxategia (CSV formatuan)

Ikaslearen eta ikastetxearen txostenez gain, Educa aplikazioak CSV formatuan dagoen fitxategi bat ere badu eta ikastetxeko ikasleen erantzunak daude bertan, taula batean adierazita. Fitxategian informazio hau dago, gaitasunez gaitasun:

- Ikasleen erantzunak. Galdera itxietan, ikaslearen erantzuna agertzen da (A, B, C, D) eta galdera irekietan, zer puntuazio esleitu den (0, 1, 2...). Informazio horri esker, modu zehatzagoan azter ditzakegu ikasleek egin dituzten akatsak eta asmatu dituzten galderak.
- Ikasleek erantzun ez dituzten galderak. Informazio horri esker azter dezakegu ikasleak zenbateraino diren gai ahalegin eta autonomia handiagoa eskatzen dituzten jarduerari aurre egiteko.

- Lortutako puntuazio zuzena.
- Esleitutako gaitasun maila.

Datuen fitxategiak ikastetxeari laguntzen dio azterketa osagarriak egiten eta Educa aplikazioak sortzen duen txostena osatzen. Esate baterako, CSV fitxategiaren datuekin ondokoa egin daiteke:

- Gaitasun desberdinen puntuazioen arteko korrelazioak kalkulatu.
- Gaitasun desberdinetako gaitasun mailen arteko korrelazioak kalkulatu.
- Grafikoak egin eta ikasleen puntuazioak irudikatu mailaz maila.
- Korrelazioak kalkulatu gaitasun desberdinen puntuazioen eta ikasleek barneko ebaluazioetan lortu dituzten emaitzen artean.
- Ikasleen erantzunak eta emaitzak alderatu ikasgelaren, sexuaren eta abarren arabera.

CSV fitxategia formatu irekiko dokumentu mota bat da, oso xumea, eta kalkulu-orrien edozein programaren bidez ireki eta maneiatu daiteke.

R. Ikusi ikastetxearen emaitzak TABLEAU:

Zuzendariak eta zikloko arduradunek edo koordinatzaileek ikus dezakete informazio hau. Educaren bitartez sartu behar dute: “Ikastetxearen ebaluazioa” → “Ebaluazio diagnostikoa” → **“Beste urte batzuetako emaitzak”**. “Beste urte batzuk” aipatzen badira ere, Tableau server-ek aurtengo emaitzen ezinbesteko irakurketa eskainiko digu, baita aurreko urteetakoa ere. Honako atal hauek kontsulta daitezke:

- Batezbesteko eraldatuak vs zenbatetsiak:** konpetentzia bakoitzeko puntuazioen batezbesteko eraldatuen grafikoak eta taulak, eta batezbesteko zenbatetsienak (ikastetxeak gutxienez lortu beharko zukeen puntuazioa, ISEKaren arabera), aurtengo ikasturtean eta azken urteetan.
- Askotariko konpetentziak:** konpetentzia guztietako emaitzak batera irudikatzen dituen grafikoa (aurtengo ikasturtekoa eta azken urteetakoa).
- Puntuazio eraldatuaren eta estimatuaren arteko aldea,** konpetentzia guztietan (aurtengo ikasturtekoa eta azken urteetakoa).
- Ekitate-tasak:** 1 eta 2 mailetan dauden ikasleen ehunekoen batura; hots, maila egokia lortu ez duten ikasleen ehunekoa. (Aurtengo ikasturtekoa eta azken urteetakoa).
- Bikaintasun-tasak:** 3 eta 3+ mailetan dauden ikasleen ehunekoen batura (aurtengo ikasturtekoa eta azken urteetakoa).
- ISEK:** ikastetxearen indize sozioekonomiko eta kulturala, aurtengo ikasturtekoa eta azken urteetakoa.
- Mailak:** konpetentzia-maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa (aurtengo ikasturtekoa eta azken urteetakoa).
- Batez besteko puntuazioak generoaren arabera** (aurtengo ikasturtekoak eta azken urteetakoak).
- Erantzun zuzenen ehunekoa, galdera motaren arabera:** item guztietan zuzen erantzundakoen ehunekoa ikusten ahal dugu, Nafarroako emaitzekin alderatuta,

baina eduki-multzo bereko item guztiak ere hautatu ditzakegu, edo prozesu kognitibo bereko item guztiak.

- j. **Erantzun zuzenen ehunekoaren irudikapen grafikoa**, ebaluaturiko eduki-multzo bakoitzean eta prozesu kognitibo bakoitzean. Gainera, erantzun zuzenen ehunekoari dagokionez, ikastetxearen eta Nafarroaren arteko aldea ikus dezakegu.
- k. Ikastetxearen erantzun zuzenen ehunekoaren bilakaera 2021etik, eduki-multzoen eta prozesu kognitiboaren arabera, eta Nafarroako batezbestekoarekiko aldea. Irakasleen klustroak ebaluazio diagnostikoko emaitzak aztertu eta baloratu beharko ditu.

Datuen gaineko hausnarketa egin ondoren, hobekuntza ildoak proposatu beharko dira eta horren guztiaren berri eman beharko zaio eskola kontseiluari.

S. Txostenen emaitzen interpretazioa

Ebaluazio Diagnostikoko proben helburua da Nafarroako hezkuntza-sistemaren egoera orokorra ezagutzeko, eta ikastetxe eta familiei ikasleen egoerari buruzko informazio osagarria ematea. Ez dira lotesleak ikasleentzat; sistema hobetzea da haien azken helburua. Zeregin garrantzitsu hori errazteko, Ebaluazio Atalak hainbat tresna jartzen ditu ikastetxeen eta familien eskura, ikastetxearen eta ikaslearen txostenekin batera, emaitzak behar bezala interpretatzeko eta dagozkion ondorioak ateratzeko.

1. Informazio hau oso baliagarria da ikastetxeetan hobekuntzak egiteko:

- a) **Zuzenketa-koadernoak eta eranskinak** (PDF), item bakoitzaren analisia barne, galdera-mota, zailtasun-maila, eduki-multzoa/testu-mota eta ebaluatutako prozesua zehaztuz. Departamentuaren webgunean daude: **Hezkuntza Departamentua → Gaiak → Ebaluazioa eta kalitatea → Kanpokoak → Nafarroako Kanpoko Ebaluazio Estandarizatuak → Bigarren Hezkuntza → 2023-2024 ikasturtea.**
- b) **Txosten orokorrak** (PDF) eta **Educa txostenak** (Tableau) ikastetxeak lortutako emaitzen azterketa xehatua eskaintzen dute.

2. Tutore-lanerako baliagarria den informazioa:

- a) **Gaitasun-mailak: esanahia eta puntuazio-tarteak**. Dokumentu bakar hori dago gaitasun guztietarako. Bertan adierazten da maila bakoitza zer puntuazio-tarteri dagokion, eta deskribatzen da zer gaitasun dauden lotuta lau mailetakoko bakoitzari.

Interesgarria da hura begiratzea familiei ikaslearen txosteneko emaitzak erakutsi baino lehen. Nolanahi ere, txosten horiek erakusten direnean testuingurua azaldu beharko da beti, eta ikasle bakoitzaren emaitzak aztertu, kontuan hartuta informazio horrek osatu egiten duela ikasgelako laneko ebaluazio jarraituan eta arruntean lortzen den informazioa.

T. Ikasleek egindako probak gordetzea

Vianako Printzea Erakundea-Kulturako zuzendari nagusiaren abenduaren 2ko 363/2021 Ebazpenaren arabera, zuzendutako koadernotxoak ikastetxean gordeko dira 2026ko ekainaren 30era arte, eta egun horretatik aurrera suntsitzen ahalko dira. Egun horretara arte, Ebaluazio Atalak koadernoak eskatzeko aukera izanen du, aztertu egin beharko balitz ere ea zuzenketa-irizpideak baliozkoak izan diren eta irizpide horiek zuzen eta modu homogeen erabili diren.

U. Eskerrak ematea

Ebaluazio Atalak eskerrak eman nahi dizkie ebaluazio zeregin honetan arituko diren zuzendaritza talde, tutore, irakasle, orientatzaile, zerbitzuetako langile, ikasle eta gurasoei.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 16an

Ebaluazio Atala

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua

I. ERANSKINA - SALBUETSITAKOEN ERREGISTROA

Ebaluazio Diagnostiko Zentsala, 2023-2024 ikasturtea

Lehen Hezkuntzako 4.a

SALBUETSITAKOEN ERREGISTROA

Ikastetxea:

 Jar ezazu "X" soil-soilik ikastetxean ez bada salbuetsita dagoen ikaslerik

Salbuetsitako erregistroa			
	Ikastaldea	Izen-deiturak	Zergatia (A, B, C, D)
1.			
2.			
3.			
4.			
5.			
6.			
7.			
8.			
9.			
10.			

- A.** Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak, Curriculum Egokitzapen Esanguratsua duten LHko 4. mailako ikasleak, bi urteko edo gehiagoko curriculum-atzerapenagatik.
- B.** LHko 2. mailako Matematika eta/edo Hizkuntza (gaztelania A/G eremuan edo euskara B/D eremuan) arloei dagozkien ikaskuntzak gainditzeko errekupeazio-planak egiten ari diren ikasleak.
- C.** Espainiako hezkuntza-sisteman berandu hasi diren ikasleak, baldin curriculum-desfase larria badute eta Curriculuma Eguneratzeko Plana aplikatzen bazaie.
- D.** Ikasteko hizkuntza ia ez jakiteagatik zailtasunak dituzten ikasleak..

* Erregistro hau ikastetxean gorde behar da (ez da Ebaluazio Atalera bidali behar).

II. ERANSKINA - EGOKITZAPENEN ERREGISTROA

Ebaluazio Diagnostiko Zentsala, 2023/2024 ikasturtea

Lehen Hezkuntzako 4.a

EGOKITZAPENEN ERREGISTROA

Ikastetxea:

 Jar ezazu "X" soil-soilik ikastetxean ez bada egokitzapena behar duen ikaslerik.

Egokitzapenen erregistroa				
	Ikastaldea	Izen-deiturak	Egin beharreko egokitzapena	Datuak Educan erregistratzea (Bai / Ez)
1.				
2.				
3.				
4.				
5.				
6.				
7.				
8.				
9.				
10.				

* Erregistro hau ikastetxean gorde behar da (ez da Ebaluazio Atalera bidali behar).

III. ERANSKINA - JARDUKETEN EGUTEGIA

2024ko urtarrila/otsaila

al.	ar.	az.	og.	or.	lr.	ig.
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31	1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29			

→ Zuzendariak erabiltzaile-izenak eta pasahitzak eskuratzea (Educan, urtarrilaren 22tik aurrera).

→ *Online* inguruneko galde-sorta aplikatzea (urtarrilaren 29tik martxoaren 8ra arte).

2024ko martxoa

al.	ar.	az.	og.	or.	lr.	ig.
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	18	17
18	19	20	21	22	25	24
25	26	27	28	29	30	31

→ Abisatu probak jatorrian ez dagokion beste ILZ batean jaso nahi badira (martxoaren 4a baino lehen).

→ Aplikatu *online* galde-sortak martxoaren 8a baino lehen! (Gomendatzen da ez uztea lan hori azken egunetarako).

→ Probak jasotzea (martxoaren 25a, 26a eta 27a).

2024ko apirila

al.	ar.	az.	og.	or.	lr.	ig.
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

→ Materialak egiaztatzea (apirilaren 10a baino lehen).

2024ko maiatza

al.	ar.	az.	og.	or.	lr.	ig.
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

→ Maiatzaren 8an posta elektronikoz bidaliko da audio-fitxategia, euskarazko hizkuntza-gaitasunaren probarako.

→ Proben aplikazioa (maiatzaren 9an, 10ean, 13ean eta 14n) eta zuzenketen hasiera.

→ Zuzendariak ikasle taldeak **matrikulatzea** eta salbuespenak erregistratzea Educan (maiatzaren 9tik aurrera).

→ Maiatzaren 9an posta elektronikoz bidaliko da audio-fitxategia, gaztelaniazko hizkuntza-gaitasunaren probarako.

→ Maiatzaren 10ean posta elektronikoz bidaliko da enuntziatu-orria bidaliko da, kalkulu mentaleko problemekin eta eragiketekin (matematika gaitasuna).

→ Maiatzaren 13an posta elektronikoz bidaliko da audio-fitxategia, ingelesezko hizkuntza-gaitasunaren probarako

2024ko ekaina

al.	ar.	az.	og.	or.	lr.	ig.
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

→ Datuak Educan erregistratzea (maiatzaren 9tik 28ra).

GARRANTZITSUA: irakasle aplikatzaileek eta zuzentzaileek erabat isilpean gorde beharko dute proben edukia **maiatzaren 28ra** arte.

→ Ikasleen eta ikastetxearen txostenak eskuratzea (ekainaren 7tik 28ra bitarte).

Gorde txostenak (ikasleenak eta ikastetxearenak) ekainaren 28a baino lehenago!